

**EIDER MENDOZA**

**Irun, 2023ko maiatzaren 22an**

**Diskurtso orientagarria. Hizlariak mitinean zehar ematen duen hitzaldia izango da balio duen bakarra.**

**Discurso orientativo. El único discurso válido será el que finalmente pronuncie el orador u oradora en el transcurso del mitin.**

Arratsalde on.

**1) Kilometroak**

Gaurko mitina, behintzat, etxetik gertu da, eta hori poztekoa da niretzat. Izan ere, azken asteetan Gipuzkoa goitik behera zeharkatzen ari gara. Herri handi, ertain edo txiki, denera iritsi nahian gabiltza guztiok ere. Baina gure kasuan behintzat, ez da kontu elektorala bakarrik.

Bi legealdi hauetan, egia esan, ez dakit zenbat kilometro egingo zituen gure taldeak. Aurrekontu irekiak direla, kapsula dela, eskualdeetako mahaia direla... Gipuzkoako herri, auzo eta kaleak goitik behera astintzen.

- Herritarrekin egon gara.
- Enpresariak entzun ditugu.
- Elkarrekin juntatu gara.

Errealitatea lehen eskutik ezagutzen dugu. Ezagutzen ditugu herritarren kezkak. Herritarrak garelako eta herritarrekin gaudelako. Ez hauteskunde kanpainan bakarrik, egunero egunero, baizik! Eta dauden arazoei aurre egiteko lan egingo dugu. Eta gure herria hobetzeko, egunero egunero. Gure herriak hazten jarrai dezan! Atzerapausorik gabe! Hori da nire konpromisoa!

**2) Gipuzkoaren egoera**

Errealitatearen ezagutza hori oinarri hartuta esaten dugu esaten duguna: Gipuzkoan arazoak egon badaude, baina oinarri sendoak ditugu. Batzuk nahiko luketenak baino hobeak! Batzuk saltzen dutena baino sendoago gaude!

Eta oinarri sendoak ditugu, hein handi batean, azken zortzi urtetan egin den lana oso ona izan delako.

- Erdira jaitsi da langabezia.
- 10.000 pertsonatan hazi da enplegu industrialia.
- Eta 1.122 plaza gehiago daude babes sozialeko sisteman.

Nola egin dugu hau guztia? Elkarlanean. Hasieran aipatu ditudan herritar, enpresari, eragile, udal, unibertsitate eta abar luze batekin elkarlanean. Jarrera irekia eta esku-zabala izan dugu, edo horretan saiatu gara behintzat. Eta lurraldeak lortu dituen emaitzak, 'logroak', lurralde guztiarenak dira. Eta Eusko Alderdi Jeltzalearen gidaritzapean lortu dira. Patrimonializazio jokoetan erori gabe, umil eta apal. Baina bakoitzari berea. Bakoitzari berea!

### **3) Adibideak**

Izan ere, denok ez dugu kultura politiko berbera, ezta ibilbide berbera ere. Eta kezka ikusten dut, nola praktikatzen duten batzuk populismoa. Hemen. Gurean. Eta hiru adibide jarriko dizkizuet: Katastrofistena, arduragabeena eta ferianteena.

### **4) Katastrofistak**

Has gaitezen katastrofistekin: dena gaizki dagoela esaten duten horiekin. Baina, konponbideak planteatzerako garaian, pankartak jartzetik pasatzen ez direnak. Pankartak, edo panfletoak, edo manifik, edo zerbaiti ez esateko plataformak. Ze hori onartu beharra dago: "expresión plastikan" eta negatibotasuna antolatzen, ez dute parekorik! A ze dinamismoa ezkortasuna bandera bihurtzen, abildadea behar da gero! Baina hortik aurrera, ez eskatu gehiago. Arazoak konpontzera, etorriko da beste norbait. Ez dute publikoki esango, baina errealitatea da: arazoak konpontzera, etorriko dira jeltzaleak. Adibidez, horretan ibili gara gu, azken zortzi urte hauetan Gipuzkoan. Besteek konpondu ezin zituzten arazoak konpontzen, izan errepideak, edo izan zaborren kudeaketa. Pankartatik atera, eta kudeaketan hasten direnean, bi pauso eman eta lehenengo oztupoan katigatzen dira!

Zer esanik ez denboran atzerago joaten bagara... Arazoren bat badago, hor egon da beti Eusko Alderdi Jeltzalea: soluzioan! Konponbidean! Herri hau aurrera ateratzen! Ardurari iskin egin gabe!

## 5) Arduragabeak

Bestetik, hor ditugu, kudeaketan egonda ere, errua eta ardura beti besteei egozten dietenak. Hemen dugu Irungo kasua! Hogei urte alkatetzan Santanok, baina hiriko arazo guztiak Jaurlaritzaren edo Diputazioaren erruak dira. Irungo arazo guztien harria, Eusko Alderdi Jeltzalearen lepo gainean jarri nahi izaten du beti. Eta hauteskundeak gerturatzean, eta urduritzean, are eta intentsitate gehiagorekin gainera! Baina zer da hau!

Bakoitzak bere ardurak ditu, eta ez du balio gauzak gaizki doazenean besteei leporatzea! Arduragabekeria eta axolagabekeria da hori! Guk ez dugu hori sekula egiten. Guk autogobernu gehiago nahi dugu, guk kudeatzeko, bai gauzak ondo doazenean eta bai okerrago doazenean Ezkutatu gabe. Konpromisoz! Aurpegia eman ez! Eta dagokigun ardurari eutsiz!

Izan etxebizitza, hezkuntza, osasuna, segurtasuna edo dena delako gaietan. Ezkutatu gabe, irtenbideak landuz lanean! Hori da Eusko Alderdi Jeltzaleak egiten duena!

## 6) Ferianteak

Bestetik, hor ditugu baita ere Madrilgo ferianteak, egunero neurri berriak iragartzen. Txikia nintzenez, herriko festetan jartzen zituzten tonboletakoak dirudite: “Siempre toca” eta “Premios para todos”. Eta, bitartean:

- Neurri kanpoko zorraren elefantea logela erdian.
- Edo pentsioen etorkizunarena.
- Edota biharko proiektu industrialen gabeziarena.
- Edo gizartearen zahartzearena.

Seriotasun pixkat, faborez! Populismo merkea eta estilo pertsonalista da hauena! Guztion baliabide publikoekin, elektoralismoa egiten! Etorkizuna hipotekatzen, boto batzuen truke! Eta arazo estrukturalen aurrean, berriz, ostrukarena eginez. Eta argi dago guk, Euskaditik, Estatuak dituen arazoak ezingo ditugula konpondu. Baina behintzat, ez gaitzela hango zurrumbilo hartara eraman. Ozen esan behar diegu ez diegula utziko lokatzetara eramaten. Ez Irun, ez Gipuzkoa eta ez Euskadi.

Euskadin ez dugu zirkurik behar! Hango show-ek ez du lekurik hemen! Hemen kudeaketa serioa eta jasangarria, etorkizuneko ikuspegia duena! Gu, haiek ez bezala, gure seme-alabei utziko diegun munduaz kezkatzen garelako. Kezkatu, eta arduratu! Arazoei heldu, eta konpondu! Eusko Alderdi Jeltzalearen eskutik!

## **7) Korteak**

Gipuzkoak ez du populismo merke gehiago behar. Gipuzkoarrok ez du katastrofista, arduragabe eta ferianterik behar! Norabide argia, eta kudeaketa ona behar ditugu aurrera egiten jarraitzeko. Jasangarria, etorkizuneko ikuspegia duena! Aldundi sendoa, benetako arazoei aurre egin eta ezkututzen ez dena! Eta hori guztia bermatu dezaken aukera bakarra Eusko Alderdi Jeltzalea da.

Gipuzkoa no necesita de populismo barato. ¡No necesita de catastrofistas, irresponsables ni feriantes! Para poder avanzar, Gipuzkoa necesita un rumbo claro y buena gestión. ¡Sostenible, con visión de futuro! ¡Una Diputación fuerte, que no se arruga ni se esconde ante los problemas de verdad! ¡Y el Partido Nacionalista Vasco es la única opción que puede garantizar todo esto!

## **8) Modelo socioeconómico**

Porque, como bien sabéis, Gipuzkoa y Euskadi cuentan con un modelo socioeconómico propio, que hemos ido construyendo entre todas bajo el liderazgo del Partido Nacionalista Vasco. Con una economía competitiva y un sistema de protección social fuertes como ejes.

Mientras otros jugaban a la revolución, nosotras hemos estado en la construcción. ¡Hemos estado en el sí! ¡En el progreso! ¡En la construcción democrática! ¡Con una ética democrática intachable, con total convicción! Y ahora, mientras otros siguen enredados con su pasado, nosotras hemos puesto sobre la mesa un programa trabajado y concreto. Década a década, ¡hemos sostenido el país! Y ahora, vamos a seguir haciendo lo mismo: ¡cuidando nuestra casa, y fortaleciéndola!

## **9) Nuestra generación**

Nuestras antecesoras han hecho un trabajo formidable y nos han traído hasta donde estamos. Ahora nos corresponde a nosotras asumir esa responsabilidad. Corresponde a nuestra generación afrontar el reto de seguir impulsando a Gipuzkoa en los próximos años. Y es un compromiso que asumimos con ilusión y fuerza:

---

*Aurrera, batera!*  
**Euskadi**  
*Mira al futuro*



Frente al pesimismo, ilusión. Frente a los problemas, soluciones. Frente a los errores, correcciones. Frente a la indefinición, un programa concreto con 350 medidas. Frente al catastrofismo, confianza. Frente al “balones fuera”, responsabilidad sin esconderse. Frente a la inseguridad, seguridad. Frente a las incertidumbres, estabilidad. Frente a las utopías, realismo. ¡Con los pies en el suelo, como dice Joxeba! ¡Frente a quienes viven mirando a Madrid, nosotras Irun, Gipuzkoa y Euskadi! ¡Frente a los juegos de trilero, una gestión responsable! ¡A nuestro estilo, estilo Partido Nacionalista Vasco, con trabajo, trabajo y trabajo!

Maiatzaren 28an, bozkatzera eta udal eta aldundi sendoak osatzera! Eusko Alderdi Jeltzalearen eskutik! Sendo, eta konfiantzarekin!

Aurrera, batera!

---